

HORREK ERDALDUNEN HIZKUNTZ ESUBIDEAK URRATZEN DITUELA ARGUDIATU DU ERAKUNDE HORREK

Udalek euskara hutsez funtzionatzea ilegal da, Espainiako Auzitegi Gorenaren ustez

■ Aizarnazabalgo Udalak —UEMA-ko kide— euskara hutsez funtzionatzeko hartu zuen erabakiaren kontra agertu da

■ «Hizkuntz koofizialtasunaren kontrakoa da euskara hutsez funtzionatzea», Auzitegi Gorenak argudiatu duenez

■ UEMA-ko lehendakari Mikel Illarregik dio mankomunitateko udalerrietan ez dela inor diskriminatzen

Mikel Arrieta / Donostia

UDALEK euskara hutsez funtzionatzea legez kanpoko da. Horrela dio Espainiako Auzitegi Gorenak idatzi eta Efe berri agentziak zabaldu duen sententziak. Euskara hutsez funtzionatzeak erdal-dunen hizkuntz eskubideak urratzen ditu, sententzian jasotzen denez.

Aizarnazabalgo Udalak (Gipuzkoa) 1992. urtean onartutako ordenantza dago auzi horren oinarrian. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) aurkeztutako mozioa ahobatez onartu zuen udalbatzak. Bertan euskaraz lan egiteko erabakia hartu zuen Aizarnazabalgo Udalak; «baina horrek ez luke eragingo biztanle erdal-duneko diskriminaziorik». Espainiako Auzitegi Nagusiaren ustez, ordea, euskaraz funtzionatzeak erdal-dunen diskriminazioa dakar.



XOUSE SIMAL

UEMA-ko lehendakari Mikel Illarregi, ezkerrean, Irura eta Anoetako alkateekin, maiatzean egin zen UEMA Egunean.

Hori gaingiduta dago

UEMA-ko lehendakari Mikel Illarregik harriduraz hartu du Espainiako Auzitegi Gorenaren erabaki berri hau. Oraindik sententzia ezagutzen ez duten arren, garbi utzi nahi izan du UEMA-ko herrietan ez dela inor diskriminatzen: «Diskriminazioaren argudio hori aspaldi dago gaingiduta. Eskatzen duen guztiak jasotzen du materiala gaztelaniaz».

UEMA, hain zuzen ere, diskriminazio egoera bati aurre egiteko jarri zen martxan: «UEMAk bere makinaraia guztia martxan jarri zuenean, garbi ikusi zuen euskara diskriminatuta zegoela, normalizaziorako bidean urratsak egin behar zirela». Egun diskriminazioaren ideia baztertuta dagoela dio: «Hemen herritar guztiek eskubidea dute informatuta egoteko, eta nahi duten hizkuntzan informazio hori jasotzen dute. Eskubide hori ez da UEMA-ko 35 herrietan inon ere ukatzen».

«Ez da zuzena»

UEMA-ko euskara teknikari Esteban Agirreren ustez, Espainiako Auzitegi Gorenaren erabakia okerra da. Hori argudiatzeko 1996. urteko erroldako datuak aipatzen ditu: «Indarrean den 96ko erroldaren arabera, Aizarnazabal 544 hiztun daude, eta horietatik 3 bakarrik dira euskararik jakin ez eta gaztelaniadun hutsak, ez dira %1era ere iristen. Aizarnazabalgo Udalak inoiz ez du ukatu bere produkzio idatziaren zati txikiena ere ulergarria egitea hiru herritar horiei. Inoiz horiei lotutako ezer tramitatu duenean, beraien hizkuntzara itzulita ematen die. Hiru aizarnazabalgar gaztelaniadun horiek ez dute inoiz kezurik adierazi Udalaren hizkuntza jokoeragatik». Testuinguru horretan, Auzitegi Gorenak esatea Aizarnazabalgo udalak idatziak gaztelaniaz egin behar dituela «okerra da».

Jose Larrarte • AIZARNAZABALGO ALKATEA •

«Ez dugu inor diskriminatzen»

UEMA-n, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, hasieratik dago Aizarnazabal.

■ Espainiako Auzitegi Gorenak dio erdal-dunak diskriminatuta daudela Aizarnazabalen?

Hori ez da horrela. Aizarnazabalen familia bakarra dago euskara ez dakiena, eta hala eskatzen dutenean ez dago inolako arazorik materiala gaztelaniaz entregatzeko. Guk ez dugu inor diskriminatzen.

Hori bai, Gobernu Zibiletik, epaitegitik, erakunde ezberdinetatik... idatziak erdara hutsez etortzen direnean, itzuli egiten ditugu gutxienez elebitan bidal dezaten.

■ Nola baloratzen duzu

Auzitegi Gorenaren sententzia berri hau?

Ez dakit zertara datozen orain horrelako erabaki batekin. Militarrekin ez kolaboratzeagatik hilabetean bi epaiketa izan ditut, eta bietan libre atera naiz. Epai-ketetan ere arazoak izan ditugu epaileek eta euskara ez zekitelako. UEMA eta EUDIMA bi gauza ezberdinak dira, baina arraroa egiten zait orain horiek esaten hastea.

■ Aizarnazabalgo Udalak bere horretan jarraituko du?

Bai, zalantzarik gabe. Ondorio guztiekin gainera; ezin dugu hamar urte haue-tan egindako lana orain bere horretan utzi.

■ Errekurrizko asmoa?

Guk oraingorik ez dugu horren berri ofizialik. Lehen-dabizi lagun batek esan dit ea kartzelan sartu behar ote nauten edo, irratia gure kontrako zerbait esan duela eta. Gu ostiralean azken ordua arte egon ginen Udalerrietan bileran, eta bertan ez dugu inolako notifikaziorik jaso.

■ Euskaraz funtzionatzeko Udalak hartutako erabakiaren aurrean nolako da herritarren jarraera?

Herritarrak oso kontzientziazatuta daude. Lehenbiziko urteetan kosta egiten zitzaion pixka bat, baina orain guztiak oso kontzientziazatuta daude. Ez dira hamar urte hauek alferrik pasatu.